

noaue



**Covid-19 ziurtagiria
eskatzerakoan
malgutasunez
jokatuko du Udalak**

**Turismo eredu berrirako
zutabe nagusiak
aurkeztu dituzte**



**San Tomas azokarekin
batera abiatu dira
neguko ospakizunak**

6. or.

KAFE GARAIA

Mariaje Imaz

Urrutikoetxea: "Zoriontsua
izan naiz Udarregi ikastolan"

Gabonetako berezitasunak

FRESKOAK:

BEHI ETA TXAHAL AZPIZUNA, KAPOIA, FOIE ESKALOPINAK, PULARDA, ARKUMEA, ANTUXUME, TXERRIKUMEA ETA ABAR...



BEREZIAK:

ARRAI ZOPA, ARRAI PASTELA, GABONETAKO KATXOPOA, ONDDO TARTAleta, TXANGURRO BETEA



ENKARGUZ
ESKAERA BEREZIAK
ERE PRESTATZEN
DITUGU!

BEHE TENPERATURAN ERREAK:


ARKUMEA, ANTUXUME, TXERRIKUMEA...



Otar-Goxo
E l i k a g a i a k

HARATEGIA - URDAITEGIA

Zubiaurrenea, 2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil



ANORGA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA



Ondo pasa
Gabonetan!

Beirazko itxitura sistema berria!!!
perfil bertikalik gabe!!
zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!
aukera zabalak!

beirazko itxitura
seeglass one
perfil bertikalik gabe

·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Albisteak iruditan

“Oinarritzko eskubideen urraketaren aldeko apustua egin dute instituzioetatik”

Eusko Jaurlaritzak Covid-19 ziurtagiriaren erabilera derrigorrezkoa ezarri du egunotan dekretu bidez, eremu itxi gehienetara sartzeko. Neurri honen aurka elkarretaratzea deitu zuen Aztarrika Usurbilgo Gazte Asanbladak abenduaren 17an Mikel Laboa plazan, “Ez ezkutatu zuen kudeaketa tamalgarria, Covid-19 pasaporteari ez!” aldarripean.

Hitzorduak belaunaldi ezberdinetako herritarrak batu zituen. “Beste behin ere, larrialdiarekiko duten ardura indibidualizatzeko saiakeran, oinarritzko eskubideen urraketaren aldeko apustua egin dute instituzioetatik”.

Ez zen Covid-19 ziurtagiriaren aurkako mobilizazio soila izan. Gazteek bizi duten “egoera tamalgarria” salatzeke ere baliatu nahi zuten protesta ekintza. “Osasun publikoko sistema odolusten ari dira. Arakatzailak bota, aurrez aurreko



Aztarrika Gazte Asanbladak deituta, “Ez ezkutatu zuen kudeaketa tamalgarria, Covid-19 pasaporteari ez!” aldarripean elkarretaratzea egin zen abenduaren 17an Mikel Laboa plazan.

kontsultak murriztu, lehen mailako arretan murrizketak egin, interbentzio kirurgikoak atzeratu...”.

Arazoa “ez dago herritar edo langileen gain”, erabakiak hartzen dituztenengan kokatu zuten. “Hauek osasuna eta bizitzak erdigunean jarri baino dekretu inpo-

satzaileak onartu eta murrizketak egitea nahiago. Betiko leloa!”.

Egoera honetan Aztarrika gazte asanbladatik iragarri dutenez, “gazteak badakigu hau ez dela irtenbidea, beraz antolatzen, borrokatzen eta mobilizatzen jarraituko dugu”.

Laburrean

2029,17raino igo da tasa

33 kasu detektatu dira azken lau egunotan Usurbilen, 69 azken astean, 166 hilabete hasieratik. 100.000 biztanleko 14 eguneko koronabirusaren intzidentzia tasa 2029,17raino igo da. Eremu gorrian segitzen du udalerrri honek.

‘Egunean Behin’ saioan saritua

ETB-k abenduaren 16an zuzenean eskaini zuen online bidezko galdera eta erantzunen lehiaketaren final nagusia Jon Arroyo Alkorta herritarrak irabazi zuen. 2.000 euroko bidaia saria eskuratu du Arroyok.

2022an hurrengo NOAUA!

Eskuartearen duzuen aldizkari urteko azkena duzue, datorren NOAUA! urtaririlaren 7an. Ordurako zorian agur edo oharrik baldin baduzue urtaririlaren 3a baino lehen helarazi erredakzioa@noaua.eus helbidera.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Ainhoa Azpirotz

A itortzen dut whatsapppe jasotzen ditudan bideo eta audio guztiak ez ditudala ikusten eta entzuten, baina lagun jakin batek bidaltzen dizkidanak bai, benetan onak, umoretsuak eta merezi dutenak bidaltzen baitizkit. Horietako bat bidali zidan orain dela gutxi eta hori da hemen hitzeta-rra ekarri eta zuekin partekatu nahi dudana.

Gizon batek bere alabari ipuinak kontatzen dizkiola zioen bideoan eta duela gutxi Hansel eta Gretelena kontatu diola. Justu anai-arrebak basoan galdu eta iluntzen hasten duen une hori, tramak goia jotzen duen momentu hori, ahots serioa jarritz kontatzen ari zitzaien, alaba beldurtu zedin, baina ikaratu ordez zera esan omen zion: “dei diezaiaela gurasoei mugikorretik”. Eta orduan pentsatu zuen lehendabiziko aldiz bere alabak ez dakiela mugikorraren aurretik beste bizimodu bat egon zela.

Eta horrekin batera jabetu zen zein beldurgarria izango zen haur literatura klasiko-ko telefono mugikorra beti existitu izan balitz. Pentsa ezazue edozein istorio klasiko-ko, bururatzen zaizuen edozeinetan: *Edurne Zuri*,

Txanogorritxuren amonaren whatsapp



Hansel eta Gretel basoan galtzen diren unean alaba ez zen ikaratu, horren ordez zera esan zuen: “dei diezaiaela gurasoei mugikorretik”.

AINHOA AZPIROTZ

“Funtzionatzen al du tramak protagonistek edozein lekutatik mugikorreztu deitu baldin badezakete?”

Txanogorritxu, Pinotxo, Agurea eta itsasoa, *Macbeth*... edozein. Eta jar dezagun telefono mugikor bat protagonista- ren poltsikoan. Funtzionatzen al du tramak? Funtzionatzen al du tramak protagonistek edozein lekutatik mugikorreztu deitu baldin badezakete?

Berdin du zein ipuin auke- ratzen dugu, istorioak ez du funtzionatzen. Esate baterako, telefono mugikorra eskuetan duela Penelopek ez dio zalan- tzaz itxaroten Ulises gertlariari. Txanogorritxuk saskian mugi-

korra izanda garaiz abisatuko lioke amonari otsoa doala eta ehiztariak ez luke etorri be- harko inoiz. Tom Sawyer ez litzateke Mississipi ibaian gal- duko Movistarreko pertsonen lokalizazio zerbitzuari esker. Lastozko etxetxoko txerri- txoak anaiari abisatuko lioke otsoa bere etxera doala. Eta Geppe- ttok eskolatik ohar bat jasoko luke Pinotxo ez dela ikastolara joan esanez.

Idatzitako ipuin askoren ga- tazka iturria distantzia, topo ez egitea eta inkomunikazioa izan ziren. Ipuin klasikoak mugikorrak ez zegoelako exis- titzen dira. Adibidez, inongo maitasun istorio ez zen tragi- koa edo konplikatua izango amoranteek poltsikoan tele- fono mugikorra izan balute. Pentsa dezagun historiako maitasun erromantikoko isto-

rio famatuenean, Romeo eta Julietarenean. Istorio horren amaierako tentsio drama- tiko osoa ustekabeko inko- munikazioan oinarritzen da: amoranteak suizidatu egin denaren itxurak egiten ditu, maiteminduek sinetsi egiten du eta bere buruaz beste egiten du, eta orduan, Julieta, esnatzen denean, benetan suizidatzen da. Ju- lietak mugikorra eduki izan balu, mezutxo bat idatziko zion Romeori 6. kapitulu- an: “hildakoarena egingo dut, ez nago hilda, ez kezkatu, ez egin txorakeriarik, musuak. Veronan ikusiko dugu elkar”.

Istorio guztiek porrot egi- ten dute telefono mugikor bat jartzen baldin badugu. Eta bideo-ko gizonak oso serio galdetzen dio bere buruari ez ote den gerta- tzen ari antzekoa gure bizi- tza errearekin. Ez ote gara ari hainbat bizipen galtzen etengabeko konexioa de- la-eta? Dena abisatu eta ja- kinaren gainean jarri behar horrekin? Zer da gure bizitza distantzia, topo ez egitea eta inkomunikazioa kenduta? Ipuinetan bezala tamarik gabe geratzen ari ote gara? Etxeko sofán eserita mezuak eta deiak jasotzen ditugu, bi- zipenak bizi ordez. Gure tra- mak distira galtzen ari dira.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



“Jendea animatu dadila odola ematera”

Urteko balantzea plazaratu du Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak. Agurtzear garen 2021. urte honetan 209 odol emate eta 126 odol emaile usurbildar izan dira. Emate kopuruan gorabeherarik izan ote den galdetu diegu aipatu bilguneko kideei. Ezetz erantzun digute, “iazko tankeran” joan dela urte hau.

Emaileei dagokienez, kide berriak hurbildu dira eta ildo horretan segitzeko gonbita luzatzen dute. “Jendea animatu dadila odola ematera”, adierazi digute. Gogoan izan, Covid-19ak eragindako osasun krisialdiak goitik behera aldarazi die dinamika. Lehen anbulatoriora joan besterik ez zen izaten. Orain, estreinakoz odola eman nahi duenak aurrez 943 007 884 telefono zenbakira deitu behar du. Lehen aldia ez dutenen kasuan, Osakidetza haiekin jartzen da hartuemanetan hitzordua emateko.

Urtarrilean datorren odol ematea

Lehen anbulatorioan izaten ziren odol emateak, orain al-



“Orain, estreinakoz odola eman nahi duenak aurrez 943 007 884 telefono zenbakira deitu behar du”.

ODOL-EMATEA

**Urtarrilaren 10ean
astelehena, 16:00etatik
20:10era, Udarregi
ikastolako erdiko aretoan**

diz Udarregi Ikastolako erdiko aretoan. Prebentzio neurriak betetze aldera, odola emateko ordutegia zabaldu egin dute; lehen 18:00-19:30 artean izaten zen, orain 16:30-20:10 artean.

Gogoan izan, bi hilean behin izaten da odol ematea, lehen astelehenetan. Azkenekoz azaroaren 8an izan zen (azaroaren 1a jai eguna baitzen). Datorre-

na urtarrilaren 10ean izango da. Urtarrileko bigarren astelehenean bai, urtarrileko eta uztailako hitzordua astebete atzeratzen baitituzte; urtarrilekoa gabonengatik, uztailakoa Usurbilgo jaiak direla eta.

Beste urte batez, Usurbilgo Odol Emaileen Elkartetik eskerrak helarazi nahi dizkiete odol emaileei eta elkarteko dinamikan murgiltzera animatzen gaituzte, taldea errelebo beharrean baita. Eta bai, aipatu digutenez, “normaltasunera heltzeko desiratzen” dira odol emaileen elkartekoak ere. Bitarte honetan, osasun krisialdiko prebentzio neurriekin segiko dute lanean.

Alejandro Tapiaren aldeko oroimen ekitaldia Aginagan

Alejandro Tapia Aiestaran margolaria zendu zela bost urte beteko diren egunerako herri omenaldia antolatu diote Aginagan. Igande eguerdi honetan, abenduaren 26an izango da, 12:00etan Eliza Zaharrean. Aginagako gazteek antolatu eta bere irudiekin hornitua egongo den hitzorduak hitzartzeak eta musika tartekatuko ditu. Deitzaileek zehaztu dutenez gainera, mural bat ezarriko dute bere eskultura ondoan eta erakusketa bat ere presatatu dute. Omenaldi egunean ikusgai izango duzue 14:00ak arte. 1930ean jaio-tako sortzaile aginagarrak ibilbide oparo askoa jorratu zuen margolari gisa. Herrian ere hor da, duela hamarkada bat pasatxo ezabatu zuten bere murala. Margolan, eskultura eta grabatu anitz landu ditu. Natura islatu izan da bere hainbat lanetan. Ur taldea ere sortu zuen.... Ibilbide oparo hau islatuko dute Eliza Zaharreko erakusketan.

Sareren urte amaierako mobilizazioa

19:00etan hasiko da

Gabonetako gehigarriaren agenda atalean 20:00etan izango zela iragarri arren, 19:00etarako finkatu du Sarek hilaren 31rako deitu duen elkarretaratzea. Iluntzeko 19:00etan Mikel Laboa plazan.

Bilboko manifestazioa

Urtarrilaren 8an, arratsaldeko 17:00etan abiatuko da La Casillatik. Ohi bezala, autobus zerbitzua antolatuko du Usurbilgo Sarek. Izena aurrez bideratu beharko da ohiko tabernetan.

Gabonetako zuhaitza piztu dute Santuenean

Gabonei ongi etorria eman zieten larunbatean Santueneko auzotarrek. Gabonetako azoka eta bazar solidarioarekin batera, arratsaldeko 18:30ean, zuhaitza piztu zuten aurtengo gabonak hartzeko auzoko zein herriko haurrek. DJGorkamendik gabonetako musikarekin girotu zuen ekitaldia.



Pasa den larunbatean piztu zuten Gabonetako zuhaitza.

“Zoriontsua izan naiz Udarregi ikastolan”

Mariaje Imaz Urrutikoe-txea Udarregi ikastolako zuzendaria izan zen bolada luze batean. 20 urterekin etorri zen Donostiatik hona “eta 63 urte bete arte hemen aritu naiz lanean”. Iazko ekainean jubilatzen zen. “Esker oneko hitzak besterik ez dauzkat”.

NOAUA! NOAUA!ren urteurrenaren aitzakian, “Kafe garaia” izeneko atala abiarazi dugu. Beraz, ezer baino lehen: non zeunden duela 25 urte?

Mariaje Imaz Urrutikoe-txea: Hementxe bertan, Usurbilen, Udarregi ikastolan. Ordurako jada baneramatzen 18 urte ikastolan lanean. Orduantxe heziketa bereziko irakasle gisa nengbiltzen. Borrokan, ikastolako egunerokotasunari aurre egiten ikasleekin, irakasleekin, lankideekin, herriarekin, familiekin... Lanketa horretan ezagutu nuen NOAUA! aldizkariaren sorrera.

Ikastolan beti garbi eduki dugu herriko eginkizunei eta herriko ekimenei lotu behar gintzaizkiola eta ikastolatik egin zitekeen ekarpena egiteko prest egon behar genuela.

Ikastolaren izaieran eta egiteko moduetan beti oso errotua egon da hori.



1978an hasi zen Udarregi ikastolan lanean. 20 urte zituen orduan. 2021eko ekainean jubilatzen zen, pandemia betean.

MARIAJE IMAZ

“Ikastolan beti garbi eduki dugu herriko eginkizunei, herriko ekimenei lotu behar gintzaizkiola”

Oker ez bagaude, irakasle irakastak bukatu berritan hasi zinen Udarregin. Kalezarko eskolaurrean, ume txikienekin.

Garai hartan pabilioi batzuketzen Kalezarren, orduantxe egin berri samarrak. Hantxe hasi ginen Antiguako beste lagun bat eta biok. Garai har-

tan irakasleak behar ziren, eta ikastola orduantxe ari zen forma hartzen. Etorri ginenerako bazekuden beste irakasle batzuk, eta jada hasiak zekuden txikienekin lanean. Gu hiru, lau eta bost urteko umeekin hasi ginen irakasle moduan. Gerora bi urtekoei ere hasteko aukera zabaldu zitzaion eta bi urtekoak ere Kalezarrean eramaten zituzten. Lan horretan 13 bat urte pasa nituen eta gero hezkuntza berezira aldatu ninduten. Lehenengoetarikoa izan ginen behar bereziak zituzten haurrak hartzen. Hezkuntzatik

aukera hori ematen hasi ziren ikastetxeetan, eta Usurbilgo ikastolak bat egin zuen egitasmoarekin. Horretan hasi ginen eta hasieran beste irakasle batzuk egon ziren, baina nik neure burua ere mundu horretan ikusten nuen, horretan murgildu nintzen. Beste 13 bat urte egin nituen heziketa bereziko irakasle moduan.

Zure ibilbide profesional osoa Udarregin egin duzu hortaz?

20 urterekin etorri nintzen eta 63 urte bete arte hemen izan naiz, Usurbilgo ikastolan.

“Esker oneko hitzak besterik ez dauzkat”

NOAUA! Pandemia betean jubilatzen zara. Ainhoa Azpiroztek NOAUA!n argitaratutako emandako artikulu batean penatzen duen, ez delako zuzentzeko aukerarik izan. Zer esango zenieke urteotan Udarregitik igaro diren ikasle, irakasle eta gurasoei?

Mariaje Imaz Urrutikoe-txea: Nik esker oneko hitzak besterik ez dauzkat. Iruditzen zait, egiten ari den lanketa oso ederra dela hezkuntza ikuspuntutik. Ez dugu Usurbilgo ikastola atzean geratzerik

nahi izan, herri koxkor baten eskola delako, besteen parean egon nahi izan da beti. Horretan lan asko egin da. Irakasleak, langileak eta familiak ere horretan daude. Lan polita egiten da, eta beraz, nik animatu egiten ditut segitzeko bide horretatik. Egoera zailak egoten dira, baina aurrera egiteko ahalmena dugu. Erronka horiei guztiei aurre egiteko nahikoa jakinduria dugu.

Jakinmina ere oso garrantzitsua da. Batzuetan eguneroko errutinan murgiltzen

gara, edo inertzietan, eta horrelakoetan kosta egiten da. Baina jakinmina garrantzitsua da bizirik mantentzeko, azken finean horrela ikasten baita. Zuk jakinmina baldin baduzu, jakingo duzu egoera anitzetan zer egin, edo zer ez den egin behar. Identifikatuko dituzu zure ahulguneak eta horiei aurre egiteko zer behar duzun atzeman ahalko duzu.

Giza baliabideei ere garrantzia eman behar zaie. Azken finean, giza-taldea kudeatzea izaten da zailena. Harremanek

orekatuak, onak, sendoak... izan behar dute eta horri denbora dedikatu behar zaio. Iku-si da pandemian ere, talde sendo bat dagoen tokian, aurrera egiten da. Elkarren laguntza hori baliatuz, aurrera egiten duzu. Nik eskertu behar dut beti eduki dudana babesa, sustengua eta laguntasuna. Hori niretzako oso garrantzitsua izan da. Zoriontsua izan naiz. Gainontzean, ni ez naiz omenaldi zalea. Beraz, egoera hau niretzako abantaila izan da, kar, kar, kar.

“Urak mugimenduan egon behar du etengabe”

NOAUA! Azken urteotan zuzendari gisa aritu zara Udarregi ikastolan. Une honetan, esku onetan al da Udarregi?

Mariaje Imaz Urrutikoetxea: Oso esku onetan dago. Ez dut zailtzarik egiten. Badago talde handi bat ere, urte asko darmanan, eta oso ondo ari dira. Esan nien, edozer gauza behar baldin badute hementxe naukatela, eta edozein aholku edo behar baldin badute, zailtzarik gabe galdetzeko.

Niretzako plazer bat izan da Usurbilen urte hauetan guztietan lanean jardutea. Herri zoragarria da, uste dut herri bizia dela gainera, mila proiektutan sartzen dena, eta hori niretzako altxor bat da; zaindu eta garatu beharrekoa. Parte hartu ahal duzuen indar gehienarekin eta aurrera egin. Batekin ez bada bestearekin, baina jendearen laguntzarekin beti aurrera ateratzen da.

Aisialdian eta kirol jardunean, Zirimara egitasmoa jarri da martxan. Udarregi Ikastola, Usurbilgo Udala eta NOAUA! Kultur Elkartea dira sustatzaile nagusiak eta haur eta gaztetxoek eskolaz kanpoko



“Niretzako plazer bat izan da Usurbilen urte hauetan guztietan lanean jardutea”.

MARIAJE IMAZ

“Hezkuntza zentro bat denez, jakin behar du inguruan zer egosten den. Formala edo ez formal izan, berdin dio, dena da hezkuntza”

jardueren eskaintza indartzea du xede. Horretan ere, Usurbil aitzindaria izan dela esan daiteke, ezta? Ala antzeko kasurik ba al da gure inguruan?

Badaude antzeko esperientziak beste herri batzuetan, baina egia da Usurbilen berehala jarri zela martxan.

2016. urtea izango zen, ikas-

tolako guraso batek eta ikaske-ta buruak ekarri zuten planteamendua ikastolara. Momentu horretan ikastolan konfiantzaren pedagogia lantzen ari ginen, eta horri ere heldu egin nahi zitzaion. Ikastolan esaten genuen: “denak lotuta egon behar du”. Esaten baldin badugu ikaslearen beharrak egon behar duela erdigunean, aztertu beharra dugu eskolaz kanpo eskaintzen ari garena. Kirol arloan edo eskolaz kanpoko ekintzetan, aisialdian, zer den egiten ari garena eta ahal den neurrian egokitu.

Udarregik Zirimaran egoteko interesa eduki du hasieratik, eta beti esan dugun bezala, horrelakoetara adi egon be-

har du ikastolak. Hezkuntza zentro bat denez, jakin behar du inguruan zer egosten den hezkuntza arloan. Lehen esan dugun bezala, eskaintza formal edo ez formal izan. Berdin dio. Dena da hezkuntza. Hor ere ekarpen bat egiteko asmoz aritu gara.

Esperientzia oso interesgarria da eta beste eskoletakoak ere hor daude (Zubieta eta Aginaga). Pauso garrantzitsua da auzoek herria egituratzeko, giza baliabideen inguruan eta pertsonen inguruan. Zentzu berean, Udala inklusioaren inguruan egiten ari den ahaleginarekin bat egin behar du ikastolak. Hezkuntza sektoreak hor egon behar du; hezkuntza arloko eragile ezberdinok hor egon behar dugu. Ez dadila izan ikastetxea edo ikastola, kasu honetan, uharte bat. Fluxu hori behar da, joan-etorri hori, batean ikasten dena bestera pasa, eta alderantziz. Urak mugimenduan egon behar du etengabe; ur geldia usteldu egiten da bestela.

Eta elkarlanean, ezta?

Hori da, elkarlanean. Oso garrantzitsua da.

“Herrian dagoen ondarea zabaltzeko tresna ezinbestekoa da NOAUA! aldizkaria”

NOAUA! Euskararen normalizazioan eragiteko sortu zen NOAUA! Kultur Elkartea. He-dabide gisa, paperean eta sarean ari gara. Elkarre bezala, kultura arloan eta aisialdian. Bistan da lan asko dagoela egiteko oraindik. Zure ustez, NOAUA!k zer du faltan eta zer du soberan?

Mariaje Imaz Urrutikoetxea: Oso garrantzitsua iruditzen zait NOAUA!, herria kohesio-natzeko eta koherentzia bat

emateko egiten diren lanketa ezberdinei. Ezinbestekoa da auzoak eta pertsonak harremanetan jartzea eta komunikazio hori bizirik mantentzea (...).

Urteotan aldaketa asko ikusi zaizkio NOAUA!ri, eta uste dut oso aldizkari egokia dela.

Digitalizazioak ekarri di-tuen behar eta menpekotasun hauei guztiei ere, uste dut ondo erantzun diezuela.

Ni ez naiz gai ikusten e-sateko zer dagoen sobera NOAUA!n, edota zer duen faltan NOAUA!k. Euskararen garapenerako eta zabalkun-derako tresna ezinbestekoa da. Horregatik zoriondu nahi zaituztet egiten duzuen lanarengatik.

Batzuetan pentsatzen dut leku guztietan gaudela, mila proiektutan,... Eta beharbada hainbeste garrantzia ematen diegun gauza batzuei garran-

tzia gutxiago ematen hasi behar dugu; eta beste gauza batzuei beste indar bat eman.

NOAUA! garrantzitsua da harremanak sendotzen laguntzen duelako. Herri proiektu gisa indarra hartzen du eta laguntzen du dauden ekimen horiek guz-tiak lotzen eta ezagutaraz-ten. Herrian dagoen ondare hori zabaltzeko tresna ezinbestekoa da.

Gabonak ate joka, betiko legez

Gabonak izan zituzten hizpide nagusi duela 25 urte NOAUA!ko lankideek urteko azken hamaboskarian. Hainbat herri-tarrek azaldu zuten haientzat gabonak zer diren. **Mari Carmen Blasco Udarregi Ikastolako irakasleak** ikastolan nola ospatzeko asmoa zuten azaldu zuen, eta etxeko txikienek opariak izan zituzten hizpide.

Gabon haietan egitarau oparoa antolatu zuten Udalak eta hainbat eragilek. **Zior-tzak** urtero antolatzen duen Errege Kabalgata eta Urte Za-

harretako egitaraua tarteko. Herrian, ordea, garaian ere baziren gabonak ospatzen ez zituzten herriarrak: musulmanak, Jehovahko lekukoak eta orokorrean ospakizun erlijiosoen aurka dauden herriarrak. Haiek ere beren iritzia azaltzeko tarte izan zuten NOAUA!n.

Urtea amaitzera zihoanez, Udalak urte hartan izandako istripuei buruzko balorazioa egin zuen, hurrengo urtean gisa horretako istripuak ekiditeko plan bat prestatu asmoz. **Zubietarrek** ere 1997ari Herri Batzarrekin asteko aukera

izan zuten, hauteskondeek emaitzak mahai gainera aterata. **Xabier Arregi, Iñaki Aizpurua, Joxeli Aroztegi, Isidro Zaldua, Larraitz Izagirre eta Eusebio Iparragirre** izan ziren lehen Herri Batzar hartako hautatuak.

Kirol arloan **ziklo krossa** eta **Haimar Zubeldia** txirrindularia izan ziren aipagai, urteko balantze txiki baten bidez.

Gabonen gaia ixteko, **DYAK** Gabonetako ekitaldietan eta edozein larrialdiren aurrean lan egiteko prestutasuna erakutsi zuen, eta herriarrek gabonetako bazkari eta afa-



1996ko abenduaren 20ko portada.

rien menuak partekatu zituzten gainontzeko herriarrek.

Duela 25 urte

NOAUA! 10. zenbakia 1996ko abenduaren 20an.

“26 urterekin eraman nuen lehenengo turroi puska etxera”

Aiako Orendain baserrian jaio zen. 26 urterekin Iturrian baserrira ezkondu zen. Han 22 urte bizi ondoren, Usurbilgo Urkamendi baserrira etorri ziren senarra eta biak 7 umerekin. Harrezkero, bertako etxekoandrea dugu Maria.

NOAUA! Gogoratzen al zara nola ospatzen ziren gabonak lehen?

Maria Aritzeta Zinkunegi: Bai, bai. Gogoratzen naiz. Lehen ere genuenarekin gustura egoten ginen. Zerbait berezia izaten bazen, gustura.

Familia osoa elkartzen al zineten?

Ez, ez ginen orain bezala denok elkartzen. Etxekoak bakarrik. Ezkonduz gero, ni ere ez nintzen baserrira joaten. Bakoitza bere etxean gelditzen zen. Gainera, “konbinaziorik” edo joateko modukorik ere ez zen garai hartan.

Zer jaten zenuen Gabon Gauean?

Baratzuri zopa, bakailaoa piper batzuekin, babarrun zuriak eta “ahia” izaten genituen normalean. Eta Eguberri Egunean, noiz edo noiz, oiloren bat.

Etxeko produktuekin moldatzen zineten, beraz.

Bai, bai. Eta, postrerako ere gatzainak edo konpota izaten zen. Gure ama zenak sagarrik onenak gordeta izaten zituen. Arratsalderako hasten zen konpota egiten.

Turroirik ez al zenuten jaten?

Ez. Nik 26 urterekin edo eraman nuen lehenengo turroi puska etxera, Tolosatik.

Zuk eramandako turroia probatu zuten, orduan, lehenengo aldiz etxekoek.

Beno, ez. Aurretik ere norbait-ek eramandakoa probatu genuen, eta orduan inbidia eman zigun.

Gogoratzen al zara nolakoa zen zeuk eramandako turroia?

Bai. Paketetxo batean eraman nuen. Biguna zen eta barra bat zuria... baina bakoitzari puska

txiki bat egokitu zitzaion, hainbeste jenderen artean...

Afalostean zer egiten zenuten?

Kontuak esan, jokoan egin puska batean... eta lo egitera, gero.

Parrandarik ez zenuten egiten, orduan.

Ez, gauean ez. Hurrengo egunean mezatara joan behar izaten genuen. Hiru meza izaten ziren, eta ahal bazen hiruretara joaten ginen. Eta lehenengoa goizeko 6:00etan zen, gainera!

Goizean mezatara eta arratsaldean festara joango zineten, bada.

Beno, hasieran, ni gaztea nintzenean, ez zen festarik izaten. Geroxeago, bai. Iturriotzen ere Urteberri Egunean zerbait izaten zen, eta Aian ere bai.

Etxe barruan, gabonetan jaio-tzarik edo jartzen al zenuten?

Orendainen ez naiz asko akordatzuten. “Niño Jesus” bat, goro-dioa ere biltzen genuen... baina gerora bai. Hona etorriz gero ere, beti jarri izan dugu jaiotza.



Maria Aritzeta ren esanetan, “Olentzero-eskea aspaldikoa da”.

Gabon gauean eskean edo jaiotzarekin ateratzeko ohi-turarik ba al zenuten?

Nik neronek ez, baina “Olentzero-eskea” aspaldikoa da. Laurgainen jendea biltzen zen eta apaizak zuzendurik baserriz baserri kantuz ibiltzen ziren.

Olentzero edo erregeak iristen ziren zuen etxera?

Ni ez naiz asko akordatzuten errege kontuez. Nik 3-4 urte nituenean, sei urteko lehen-gusuak galdetu zidan: “erre-geek erregalorik ekarri al dinat?”, eta nik ez nekien errege eguna zenik ere! Ez ziren orain bezala haurrak jaiki eta oparien zain egoten.

Covid-19 ziurtagiria eskatzerakoan malgutasunez jokatu du Udalak

Malgutasunez, herritar guztien eskubideen alde lanean segitzeko borondatea agertu zuen udal gobernu taldeak, Covid-19 ziurtagiriaren derrigorrezko erabileraren inguruan abenduaren 17an herri eragileekin Potxoenean egin zuen bileran. Pandemia osoan zehar egin bezala, herrikideon elkar zaintzarako, elkar babesteko deia egin zuen udal gobernu taldeak.



Urgentziazko bilera deitua zuen abenduaren 17rako udal gobernu taldeak herri eragileekin Potxoenean.

Eusko Jaurilaritzak bi egun lehenagotik indarrean zuen eremu itxi gehienetara sartzeko Covid-19 ziurtagiria erakustea derrigortzen duen dekretu berria. Neurriak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udalerriei eragiten die, baita beraz, Usurbili ere noski. Udalerrri honi begiratu zer? Horri buruz jarduteko urgentziazko bilera deitua zuen abenduaren 17rako udal gobernu taldeak herri eragileekin Potxoenean. Beste ezer baino lehen, Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak bat egin zuen, Jaurilaritzaren azken erabaki honek herritarren artean eragindako kezka, zalantza eta haserrearekin. Nabarmentzeko moduko bigarren argibide bat ere eskaini zuen, azken aldian herrian detektatu diren Covid-19 kasuen gorakada handiaren harira. “Gehiengo ondo dago”. Kezka agertu zuen bereziki, osasun sistemaren egoerarekin, gainezka eginda eta baliabide falta agerikoare-

UDALA

“Udal langileak izango dira pasaportea eskatzeaz arduratuko direnak kultur edo kirol ekitaldiren bat dagoenean udal instalakuntzetan”

kin baitago.

Pandemiaren kudeaketa halere neurri murriztaileen norabidetik doala gogoratu zuten, ez hainbeste osasun sistema baliabidez hornitu eta indartzearen bidetik. Testuinguru horretan, zehazki Covid-19 ziurtagiria derrigorrez eskatu eta erakutsi behar diren eraginkortasuna zalantzan jarri zuten, “neurri horren alderdi sozialaz” ere kezka agertzearekin batera. Ziurtagiria erakusteko derrigortasuna neurri “bartzertzailea izan eta pertsona batzuen eskubideak kolokan jar ditzakeela” ohartarazi zuten. Udal gobernu taldetik orain arte egin duten moduan,

herritar guztien eskubideen alde lanean jarraitzeko asmoa agertu dute.

Udal baliabideen ardurapean

Halere, Covid-19 ziurtagiriaren erabilerari dagokionean, baietz adierazi zuen udal gobernu taldeak, administrazio publikoa diren heinean behartuak dardela “neurri hau bete eta be-tearaztera udal ekipamenduetan”, Jaurilaritzaren dekretuak dioen moduan eremu itxi gehienetara sartzeko ziurtagiria eskatzera alegia. Baina hainbat argibide eskaini zituen; bate-tik, “inongo talderen ardura-pean ez dugu jarriko ziurtagiria eskatzeko ardura”. Udal baliabideak, udal langileak izango dira zereginotaz arduratuko direnak udal instalakuntzetan kultur edo kirol ekitaldiren bat dagoenean. Dagoeneko udal langileekin zenbait bilera egin dituzte ziurtagiriaren erabileraren inguruko irizpideak finkatzeko.

Halakoetan “ziurtagiria eskatu baino ez dugu egingo”. Erakustea galdegingo dute eta une horretan “malgutasunez jokatu dugu”. Pandemia hau bakoitzak bere modura bizi duen arren, laguntza eta ulermen eskatu die udal gobernu taldeak eragile zein herritarrei. Gogorarazi zuten, ziurtagiria erakustea eskatuko dutenak “herritarrak dira. Ez da trantze erraza izango. Ez genduke herrikideen artean giroa txartzerik nahi”.

“Estigma sozialak kezkatzen gaitu”

Herrikide guztien eskubideak bermatzeko nahia agertu zuen udal gobernu taldeak. “Estigma sozialak kezkatzen gaitu”. Bereziki pandemiak gehien kolpatu dituen kolektiboak; helduen kasuan, “neurri hau sozializaziorako traba dela” aipatu zuten. Haur eta gazte-txoak ere gogoan hartu zituzten. Kirol ikastaroren bat egin ari den gaztetxo bat neurri honengatik eskaintza horretatik kanpo geratzea ez luketela nahi argi adierazi zuten, kirola egitea osasun kontua dela nabarmenduta. Honenbestez, malgutasunez jokatu eta sor daitezkeen kasu ezberdinak aztertzeko borondatea agertu du udal gobernu taldeak.

Pandemia hasi zenetik egin izan duten moduan, herritarren arteko elkar zaintzarako, elkar babesteko deia egin dute.

Asteotarako eskaintzari eusteko apustua

Egunotarako ospakizun eta hitzordu bereziei begira udal-erri bakoitza hartzen ari den norabide ezberdinaz ere mintzatu ziren Potxoeneako bileran. Usurbilgo kasuan, Udalak unean uneko araudiaren

“interpretazio malgua eginez” datozen asteotarako iragarria dagoen kultur eskaintzari eustea erabaki dute. “Kalean izango dira gehienak”, ohartarazi dute udal gobernu taldetik eta “asko haurrei zuzendurikoak”, udal

gobernu taldearen esanetan pandemia gehien kolpatzen ari den kolektiboetako bati zuzendurikoak. Orain arteko prebentzio neurri eutsita ospatuko dira ekitaldiok; gogoan izan, ohiko neurriez gain (musukoak, es-

kuen garbiketa, distantziak...) behartua egon ez arren Udalak udal ekipamenduetako edukiera %60ra gutxitzea erabaki zuela azaroan. Murrizketa hau bere horretan mantenduko dute asteotan.

13 saritu San Tomas Azokan



Argazkian, NOAUA!k antolatutako babarrun eta sagardo lehiaketako irabazleak.



Argazki honetan, Sagardoaren Unibertsitateak antolatutako Muztio Txapelketan nahiz Egurrezko Sagardo Txapelketan saritutakoak.

Osasun krisialdian segi arren, prebentzio neurriak hartuta Usurbilen errotuak ditugun ohiturei bide ematen jarrai dezakegunaren adierazle argia izan da, iazko etenaldiaren ostean abenduaren 19an plazara itzuli zen NOAUA!-k antolaturiko San Tomas Azoka.

Giro eguzkitsuak lagunduta, belaunaldi ezberdinetako herritarrak (pandemia hasi zenetik antolaturiko hitzorduetan gutxitan ikusten diren hainbat tartean) izan zituen bisitari NOAUA! K.E.-k antola-

AZOKA KOLORETSUA
Denetariko eskaintza aurkitu zuen bisitariak, herri eragile ezberdinek jarritako postuetan. Tokiko ekoizleen produktuak erosi eta dastatzeko aukera ere izan zen

turiko hitzorduak. Denetariko eskaintza aurkitu zuten, herri eragile ezberdinek (Etumeta AEK euskaltegia, Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba, Usurbil 1936, NOAUA!, Kilo-

metroak...) jarritako postuetan. Baita tokiko ekoizleen produktuak erosi eta dastatzeko aukera egon zen (Lumagorri oilaskoak, gaztainak, gaztak, ikastolako en zozogintza jakia...). Bitartean, epaimahai bana lanean. Inoiz baino eskuzabalago itzuli baitzen azoka. 13 sariturekin amaitu zen antolatu ziren txapelketa ezberdinei esker.

11.000 euro Zuberoko ikastolentzat

Nafartarrak kultur taldeak asteotan bideraturiko Xiberoko ikastolen aldeko kanpainan

saldutako bertako produktuen otarren bidez 11.000 euro bildu dituzte, sustatzaileek abenduaren 19ko San Tomas Azokaren amaieran berri eman zuten.

Guztira, 2.300 saski

“Milesker Usurbilgo jende guztiari”, adierazi zien herritarrei Ekaitz Masusta Xiberoko kanpainaren koordinatzaileak. 2.300 saski saldu dituzte guztira Euskal Herri osoan, “sekula baino gehiago”. Eskertzekoa eta beharrezkoa haien ikastolen sostengurako. “Datorren urtean berriz hor egongo gara”, iragarri dute.



Azokak frontoia hartzen zuen bitartean, Sutegi aurrean Ixabel Agirresarobek ipuin kontaketa osatu zuen txikienentzat. Haur mordoak jarraitu zuen gertutik kontakizuna

150 euroko bonua

Aurten NOAUA!ko bazkide egin direnen artean, Hurbilagoren 150 euroko erosketa bonua zozketatu genuen. Luis Miguel Zulaika Portu izan da saritua.

NOAUA!k antolatutako txapelketak

Babarrun txapelketa

- 1.- Pili Arroyo (Zugasti baserria).
- 2.- Antonio Eizagirre (Aldapa).
- 3.- Manuel Aizpurua (Ibai-Ertz).

Sagardo txapelketa

- 1.- Jon Argote (Egiluze Aundi).
- 2.- Arkaitz Portularume (Agerre Txiki).
- 3.- Xabier Izeta (Izeta anaiak).

Sagardoaren Unibertsitatearen Txapelketak

II. Sagar Muztio Txapelketa

- 1.- Josu Agirrezabala.
- 2.- Juan Ignacio Astiazaran.
- 3.- Igor Matxain.

IV. Egurrezko Sagardo Txapelketa

- 1.- Iker Agirrezabala.
- 2.- Jokin Eizagirre.
- 3.- Kupela-Kupela elkarte.



Lehiaketako sardoia doan dastatzeko aukera izan zen azoka garaian.



Lehian ziren babarrunak ikusgai jarri genituen.



Gaztaingileen koadrila ezaguna plazara itzuli zen.



Jon Harreguyk etxean ekoitzitako gaztak salgai izan zituen.



Ez zen jatekorik falta izan. Lumagorri oilaskoak erretzen aritu zen Koldo Huegun.



Zuberoako ikastolen alde, Nafartarrak taldeak bideraturiko elkartasun kanpainaren baitan 11.000 euro bildu dira Usurbilen eta inguruko herriotan.

“Album” antzezlanak arrakasta izan zuen Sutegin



Udalak eta Hitz-Aho Guraso Elkarteak txokolate-jana egin zuten Askatasuna plazan eta Sutegi aurrean, eta ondoren, “Album” antzezlanari bide eman zioten Sutegin.

Azoka eta elkartasun bazar arrakastatsua Santuenean



Aurreko larunbatean, musika giroan eta herriko zein auzoko jendeak lagunduta, azoka txiki baina erakargarria osatu zuten. Auzoko DJak jaia luzatzea erabaki zuen harrera ona medio.

Alex Tello: “Betidanik izan naiz komikizalea”

Antzezle nahiz gidoilari gisa ibilbide luzea osatu du. Antzerkian, zineman eta telebistan ikusi izan dugu. Beste saltsa askotan ere inplikatu da urteotan. ‘Sua’ liburuak Alex Tello berri bat ezagutarazi digu ordea, Alex Tello komikigilea.

NOAUA Antzezpenarekin lotzen dugu zure izena. Antzerkiarekin eta zinemarekin. Hau duzu lehen komikia, ezta?

Alex Tello: Betidanik izan naiz komikizalea. Ikastolan antzerkia deskubritzen hasi nintzen sasoi hartan, komikigintzan ere aritu nintzen aldi berean. Nire lehen komikian nire tutoria zen protagonista, Josu Leukuona, eta ‘SuperLeukuona’ izena ipini nion komikiari. Esan behar da gustatu zitzaizola, kar, kar, kar. Zaletasun hori beraz, betidanik izan dut.

Komiki bat egiteko ideia betidanik izan duzu hortaz.

Egia esan, ez. Nik ez neukan komiki bat egiteko asmorik buruan. Baina hala gertatu da. 2010. urtean Su Ta Garren inguruko musikal bat prestatzen hasi nintzen, nire kaxa. Broadway estilok. Hori zen nire fantasia. Euskal gazte baten historia kontatu nahi nuen,



‘Sua’ izeneko komikiaren gidoia Alex Tellorena da. Su Ta Gar taldeko kanten hitzak josiz osatu du kontakizuna.

ALEX TELLO

“2010. urtean

Su Ta Garren inguruko musikal bat prestatzen hasi nintzen, nire kaxa. Broadway estilok. Hori zen nire fantasia”

hiru ekitalditan banatuta. Su Ta Garren kanta guztiak hartu eta letra zatiak aukeratzen hasi nintzen. Zirriborro bat osatu nuen baina ez nintzen musikal bat egiteko moduan ikusten. Eta

ideia bere horretan utzi nuen. Urteekin, bapatean, komiki bat egiteko ideia piztu zitzaidan eta ‘Sua’ izan da horren emaitza. Hiru ekitaldien ideia adibidez, mantendu egin da komikian.

Denbora honetan batera eta bestera jo duzu. Xabiroi aldirikariko Dani Fano zuzendarirengana jo zenuen halako batean. Bere iritzia gakoa izan zen, ezta?

Hala da. Egitasmoa azaldu eta segituan esan zidan ikusten zuela. Orduan hasi nintzen komikiari forma ematen.

Ezohiko lan bat da ‘Sua’. Originala. Su Ta Garren abesti ezberdinetako letrak josiz osatu duzulako gidoia. Antzeko lanik ez dugu ezagutzen. Erreferentziarik izan duzu ala itsu-itsuan abiatu al zinen?

Itsu-itsuan abiatu nintzen. Gerora ezagutu ditut musika taldeei buruzko komikiak. Egia esan, oso modu espontaneoan hasi nintzen. Honen hastapenean ez zen gogoeta askorik egon. Dena den, gogoetarik egin izan banu akaso ez ginateke honaino iritsiko, kar, kar, kar.

“Julen Ribas marrazkilariak lan itzela egin du”

NOAUA! ‘Sua’ ez da Su Ta Garri buruzko komiki bat. Baina Su Ta Garrekin eta bereziki Su Ta Garren garaikide izan direnekin zerikusirik handia du, ezta?

Alex Tello: Hala da. Dena den, komikia zehazten hasi ginenean, irizpide bat zen atenporala izan behar zuela. Ez genuen 80ko edo 90eko hamarkadan kokatu nahi...

Tokia, komikiko istorioa ga-

ratzen den kokalekua ere ez da zehazten.

Hori zen ezarri genuen beste premisa. Komikiak hala ere, arrereko hamarkadetan bizi izan ditugun hainbat uneetara edota bizipenetara garamatza. Hala ere, komikia egiten hasi ginen garaian, erreferendumearekin ari ziren Katalunian eta han gertatzen ari zen guztia maiz bizi izan dugu guk Euskal Herrian. Beraz, garai bateko kontuak direnak gaur egungoak ere izan

daitezke.

Komiki batean, gidoiak besteko pisua du irudiak. Julen Ribas marrazkilariaren lanak zein neurritan eragin du zure gidoian? Nolakoa izan da bien arteko hartuemana?

Hartuemana oso erraza izan da. Lan itzela egin du Julenek. Joseba Larratxek aipatu zidan bezala, oso zalea den batek egin duenez, horrek asko laguntzen du (Alex Tello bezalaxe, Julen

Ribas ere Su Ta Gar zale amorratua da).

Zirriborro bat bazegoen, ekitaldi bakoitzean zer gertatzen zen ulertzen zen. Gidoi literarioa egin genuen ondoren eta Julenek, gidoi horrekin, kanteekin eta eman zaion askatasunarekin bere sorkuntza-lana egin du. Bidean ez dugu inolako arazorik izan. Oso ondo joan da ‘Sua’ komikiaren idazlan-prozesua.

“Su Ta Garren zaleen artean oso harrera ona izan du”

NOAUA! Su Ta Garrek ere gertutik jarraituko zuen komikiaren nondik norakoa. Iradokizunen bat egin al dute ala aske aritu al zarete une oro?

Alex Tello: Erabat libre aritu gara eta, aldi berean, Su Ta Garrekoak oso presente egon dira. Urrats guztien lekuko izan dira eta euren iritzia emateko aukera izan dute.

Niri errespetu handia ematen zidan eta asko kostatu zitzaidan eurengana jo eta egitasmoaren berri ematea. Oso delikatu baina planteamendua. Beste sortzaile batzuen letrekin ari garenez, intrusismo ariketa bat izan daiteke. Baina komikiaren ideia asko gustatu zitzaien hasiera hasieratik eta oso ondo hartu zuten.

Liburuan egileen hitzaurreak ageri dira. Epilogo Su Ta Ga-

rrena da baina tartean bada taldeari buruzko idatzi bat, komikiaren osagarri dena.

Hala da. Mikel Soto idazleak eginiko idatzia, landua, eta horrek ere pisua eman dio komikiari.

Musika talde baten letrekin osatuta dago ‘Sua’, baina protagonista gazte bat da eta bere gorabeherak dira nagusi. Une jakin batean, musika izango da bere helduleku bakarra, ezta?

Existentialki noraezean dago eta ez da inon kokatzen. Bizitzak gainera, ez dizkio gauzak errazten. Ez aurrera ez atzera, egoera horretan aurkitzen da. Parrandan topatuko du bere ihesbidea. Baina horrek zulo batera eramango du. Aurrerago beste zulo batzuk ere ezagutuko ditu. Zuk diozun bezala, musikan topatuko du bere

tokia. Iaiotasun bat du, berezkoa. Musikaria bazen aurretik ere, baina lehen ez bezala, musikak zentzua emango dio bere bizitzari. Musika taldeari esker kokatuko da munduan eta denen aurrean. Bere nortasuna finkatuko du eta aldarrikatuko du.

Durangoko Azokan izan zinen, Su Ta Garren saltokian, aleak sinatzen. Zer nolako harrera egin diote zaleek?


Harrera oso ona izan da. Jendea gogotsu hurbildu zen Azokara. Su Ta Gar zaleek ez zuten halakorik espero eta harrera oso ona egin diote. Sorpresa handia izan da denontzat.

Komiki hau eta gero, zer? Zein izango da zure hurrengo kultur egitasmoa?



Durangoko Azokan, Su Ta Garren saltokian egon zen ‘Sua’ komikiaren aleak sinatzen.

Dena utzi eta etapa bat itxi nahi nuen komikiarekin. Gizarte hezitzaile gisa ari naiz lanean azken urteotan. Hala ere, film luze batekin ari naiz nire denbora librean. Gazte batzuei buruzko istorioa da eta hainbat atal grabatu ditugu dagoeneko.



Pirritx, Porrotx
eta Marimotots

KUIKUI

Abenduak 29, asteazkena

1. emanaldia: 16:00
(ate irekiera, 15:30)

2. emanaldia: 18:30
(ate irekiera, 18:00)

Oiardo Kiroldegian

Sarrerak: 8€ usurbilkultura.eus
plataforman abenduak 17tik aurrera.

noa



Usurbilgo Udala



Hamaika ikustekoak

Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.



Sudokua

Egutegiko azken hila abendua da. Lotazila edo neguila ere esaten zaio. Bete itzazu hutsuneak abendua hitza osatzen duten hizkiez (A, B, E, N, D eta U). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

	E	B			N
	U				
		D		A	
	A		U		
				B	
A			E	D	



Bete itzazu hutsuneak argindarraren domino zati honek zentzua izan dezan.



DOMINOAN

Mezua

Marrazkitxook ezkutatzen duten esaera ezin hobeto dihoakio mutiko honi. Jarri marrazki bakoitzaren azpian bere hizkia eta osatu esaera. Erabili irudi-alfabetoa.



Bide batez, irudia margotu.



ALFABETOA




Itzala Ez dakigu Aita Noelen laguntzaileetako bat den, ala Maripurtzil ote den, ipotxez mozorrotuta. Nolanahi dela ere, Olentzerori opari batzuk ostuta alde egin du. Ikusten ari zaren itzal horietatik bakarra da zuzena. Zein da?

Bide batez, margotu ezazu zure gustura.



Engainariak

Zazpi txatal hauetatik hiru ondoko irudi nagusitik hartuta daude eta beste laurak, berriz, engainariak dira. Bereiz itzazu.



Gizarte eredu desberdin baterako eta herri harrotasunerako turismo plana aurkeztu dute

Herri nortasun bizia mantentzea helburu izan eta plan batek askoz haratago doan herri proiektua aurkeztu zuten Usurbilgo Udalak eta egitasmoa diseinatzeko ari den Jon Maia bertsolariak abenduaren 11n Sutegin. Mundu hobego bat eraikitzen lagundu eta herri harrotasunerako tresna izan nahi duen bestelako turismo eredu bat lantzeko oinarria.

Bestelako gizarte eredu baterako, mundu hobego bat eraikitzeko eta herri harrotasunerako tresna gisa aurkeztu zuten baimendutako edukiera bete zuten Sutegiko ekitaldian; Usurbilerako turismo eredu berrirako egitasmoa. Turismo plan batetik askoz haratago doan “dimentsio handiko proiektua”. Proiektu honen abiapuntua izango dena hain zuzen, “edukiz eta moldez baloreari jarri nahi duguna, berritzailea da ikuspegi guztietatik”, Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak zioen. Baita kudeaketaren ikuspuntutik ere. Ez baita udal plan bat izango, “komunitatearen sostengua” beharko duen “herri proiektua” baizik.

Orain arte egindako lanketa aurkeztu zuten alkateak Udala-



Alkatearen esanetan ez da udal plan bat izango, “komunitatearen sostengua” beharko duen “herri proiektua” baizik.

JON MAIAREN ESKUTIK

“Berrogeitik gora herri eragilerekin eginiko bileretan, bestelako turismo eredu baterako egitasmoa diseinatu du”

ren izenean eta baita Jon Maia bertsolariak ere. Bertsotan ari-tzeaz gain, eremu honetan lanean dihardu. “Hilabete asko” darama Usurbilen lanketan. Berrogeitik gora herri eragilerekin egin dituen saioetan oinarritutako bestelako turismo eredu baterako egitasmoa diseinatu du.

“Beste mundu bat posible da”

Gaiak eragiten zion kezkatik “alternatiba” bat lantzerako bultzatu zuen Maia pandemiak baldintzaturiko iazko udan. “Egindako gauza gehienetan beste mundu bat posible dela elikatzen bultzatzen saiatzen naiz”, zioen Maiak Sutegiko aurkezpen ekitaldian. Eta hala, bestelako turismo eredu baten lanketari ekin zion, hainbat udalei aurkeztu gero eta “Usurbilgoak halako zerbaiten bila zebiltzala” adierazi zioten.

Eta hortik ekin diote hila-beteotako lanari; “turismoa

arazo bilakatu izan dena nola bihurtu aukera”, erronka horri forma ematen. Bi fase ditu Maiaren esanetan, Usurbilgo proiektuak; lehenengoa, informazioa biltzea litzateke. “Zerk ezaugarritzen du Usurbil?” galderari erantzutea. Eta segidan eskaintza bat osatzea, “zer eta nola erakutsi nahi dugu?”. Beti ere “zuen onespenezarekin” adierazi zien Maiak herritarrei, gogorazi baitzien, “plan honen onuradunak izango zarete”. Eta egitasmo honen azken emaitza, “herri bizia, herri identitate bat mantentzea da”.

Altxor ugariko herria

Usurbilek badu zer erakutsia Maiaren esanetan. “Aberastasun handia” du, “herri txikia izanik beste herri gehienek ez dituzten hainbat altxor dituzue”. Horregatik proiektu hau, “zuen buruaz harro eta nahi dugun mundu horren protagonista” izatea sustatu nahi dute. Hala aurkeztu zuten, amaitzeaz dugun 2021 honetan herri honek bete duen urtemuga borobilari keinu eginez, “650

Usurbil bizi”, “Usurbil bizigarria” egin nahi duen egitasmoa.

Zertan zehaztuko den, hurrengo urratsen berri eman zuten. Urte berrira begira, Sutegin aurkeztutakoa herri eragileekin partekatzeke erronda egingo dute datozen hilabeteotan. Komunitatearen sostengua beharko duela iragarri zuten, eta honenbestez, “Udalaren eta herri eragileen artean lankidetzara eratu nahi dute honi bide ema-

teko”. Espazio partekatu bat sortu nahi dute, ekarpenak jaso eta elkarlan horretatik garatzeko proiektu hau. Parte hartze prozesu bat bideratzekotan dira datorren urtean. Horregatik diote, aurkezpen ekitaldia bera abiapuntua baino ez dela.

2022rako udal aurrekontuetan 100.000 euro inguruko partida gordea du udal gobernu taldeak egitasmo hau bideratzeko. Webgune bat ere martxan jarri

asmo dute. Eta 650. urtemuga oharkabeaz igaro ez dadin, kalejartarrek azaroa hasieran eskaintak emanaldiaren ondorengatik, Usurbilgo historiaren pasarte ezberdinak islatuko lituzkeen herri antzerki bat sortzeko asmoa ere agertu dute. Herria erretratatzeko lukeen ikuskizuna, “Usurbilen identitate transmisio lan garrantzitsua izan liteke”, Udalaren esanetan.

Turismo eredu berrirako zutabe nagusiak

Turismo eredu berri baterako oinarri nagusiak aurkeztu zituzten abenduaren 11n Sutegin. Jon Maiak orain arte egindako lanketaren adierazle, Usurbil zerk ezaugarritzen duen diseinatu dutela jada. Herri eragileekin egindako errondatik ezaugarriok dira Usurbilgo nortasunaren zutabe eta kanpora begirako erakusleiho. Usurbilek altxor nagusiok ditu.

Sagardoaren Usurbil

Edari preziatu honen kontsumoaz haratago, sagardoaren inguruko kultura sustatzea nahi dute, “zentzu zabal eta sakonenean”. Arlo honetan lanean diharduten eragileak ekarri zituen gogora Maiak; herrian dauden zazpi sagardotegiak, Sagardo Egunaren Lagunak edota formakuntzan erreferentzialtasun osoa duen Alkartasuna Kooperatiba.

Txalapartaren Usurbil

Artze anaien ondarea, txalapartaren kultura sustatzen diharduen Jexux Artze Kultur Elkarteak ekarri zuen Maiak gogora. Baita Oreka Tx-ek kudeaturiko Txokoaldeko Txalaparta Txokoa.

Zero zabor Usurbil

Aitzindaria da udalerri hau hondakinak kudeatzeko eredu. “Kanpotik datoz hemengo ereduaz ezagutzera”, nabarmendu zuen Maiak. Interesa sor dezakeelakoan aukera hau turismorako eskaintzan bilakatzea proposatzen du.



Herri eragileekin egindako errondatik hainbat oinarri finkatu dira.

Errioaren Usurbil

Eragileekin egin duen errondan behin baino gehiagotan entzun du Maiak, “errioari bizkar emanda bizi” dela Usurbil. Baina naturaren, aisialdiaren edota ondarearen ikuspuntutik duen aberastasuna goraiatzeko du; angulen historia edota ontzizintzaren industria, erriberako nekazal lurrak...

Ondarearen Usurbil

Herriak duen ondare aberastasuna nabarmentzen ditu proiektu honek; errotarri eta mugarriak, Elizako organoa, Andatza mendia bera, baserrien inguruan bideratu den lanketa. “Bisita asko” egiteko aukera eskaini dezakete.

Usurbil museo irekia

Herri proiektu berri honek sor-kuntza aldetik Usurbilek duen aberastasuna ere baloreari jartzen du; herriko kale eta plazetako artista ezagun ezberdinen horma irudiak, eskulturak...

Angularen Usurbil

Bere historia eta industria aipatu zituen Maiak. Bereziki nola

ezaugarritu duten Aginaga. “Jakitura inmaterial” hori berreskuratzeko proposamenak dituzte.

Ez dok Amairuren Usurbil

Mugimendu honetako zenbait partaide usurbildarrak ditugu, Artze anaiak kasu. Baina kide gehiagok izan zuten lotura estua udalerri honekin. “Gure ametsa” zioen Maiak, hemen kokatuko litzatekeen “Ez Dok Amairuren interpretazio zentro nazionala” litzateke. Amets “zailenetakoa”. Bestalde, Ez Dok Amairuri buruzko baso magikoa ere proposamenen artean legoke, “Artze eta Zume-taren unibertso imaginarioan oinarriturikoa”.

Memoria historikoaren Usurbil

Usurbil 1936 elkarteak memoria historikoa berreskuratzeko lanean dabil, informazioa biltzen, lubakiak berreskuratzeko lanean... “Hau ere turismorako eskaintzan” bilakatzea proposatzen du.

Errebotearen Usurbil

“Babes berezikoa eta ondare

izaerakoa” bai errebotea bera, Zubietako pilotalekua. Maiaren esanetan, “baloreari jartze-ko altxor bat”.

Zaintzaren Usurbil

Eremu honetan eredu berri baten lanketan murgildua da Usurbil. Hor ditugu gauzatze bidean Txirikorda belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioaren proiektua edota Matia Kalezarren eraikitzen ari den adinekoen auzune berria. “Ez litzaiguke bururatuko zaintza eskaintza bihurtzea. Goazen erakustera nahi duenari”.

Euskararen Usurbil

“Herri gutxi egongo dira Usurbilgo sinbolismoarekin”, Maiaren esanetan, “ohorezko lekua dutenak euskararen historian”. Herri honetan sortutako artistak euskarari lotuak daude, Europako hizkuntza gutxituen teknologian erreferentziala den Elhuyar lantegia ere Usurbilen kokatua dago. Euskararen erabilera sustatzeko politikak ditugu udalerri honen hitzarmen ugari ere bai; tartean Jakin eta UEU-rekin... Hau guztia turismo eskaintzan bilakatzea litzateke erronka. “Usurbila datorrena egun bat euskara hutsez bizi ahal izatea”.

Naturaren Usurbil

Alderdi hau ere turismorako baliabidean bilakatzea proposatzen dute; bereziki Andatza edota errio ingurua, baina hori bai, modu “kontrolatuan eta ondareari eta nekazal lurrak babestuz”.


Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
RPS: 28/17
20170
USURBIL


JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

“Hitanoaren erabilera bultzatzeko asko egin dezakegu”

Hitanoa bizirik mantentzeko zeregina badugu eta egin daitekeena gure esku dago, “Hikastearen” baitan, abenduaren 1ean Potxoenean antolatu zuten “Hitanoa hemen eta orain: adituen hitzak eta arituen ekintzak” hitzaldian argi utzi zuten moduan.

“Pertsona egokiak, toki egokian, momentu egokian, asko egin dezake”. Esaldi honen bueltan borobildu zuten solasaldia. Bistan utzi zuten asko dugu egiteke, antolakuntzak egunotan plazaratu duen “patrikarako hitanoa” liburuxkak dioen moduan “Usurbilen ondare hori babestu eta suspertzeko”.

Baina gai honen inguruko lanketa ere egin dago. “Iker-gai emankorra” izan da hitanoarena, hizlari Garbiñe Bereziartuak eta Beñat Murguruzak nabarmendu zuten. Gaiak interesa piztu izan duela zioten, eta “ugaritu egin dira azterketa soziolinguistikoak”. Lan guztion bilduma hitanoaz. eus atarian kontsultatu dezakezue.



Ikerketa baten arabera, gizonezkoen hitanoaren erabilerak ia emakumezkoena hirukoizten du.

Gizonezkoen %38ak ahotan hartzen zuen artean, emakumeen kasuan hikaren erabilera %14raino murrizten zen

Arrakala nabarmena

Tartean bada baita hitanoaren kaleko erabilerari buruzko azterlanik ere. Euskal Herrian bi udalerrietan egin dira tokian tokiko udalen enkarguz; bat Azpeitian, bestea Usurbilen duela bost bat urte. Soziolinguistika Klusterrak bideraturiko lanketari buruzko hainbat datu ekarri zituzten gogora Potxoeneako abenduaren 1eko hitzaldian aipatu bi hizlariak. Kaleko elkarrizketetan oinarritutako neurketan behatutako

usurbildarren %73ak euskara ahotan hartzen zuela ondorioztatu zuten Klusterrekoek. Haietatik %28ak baino ez zuen hika egiten, gainerakoek zuka. Baina generoaren aldagia kontuan izanda, arrakala nabarmena dago. Gizonezkoen %38ak ahotan hartzen zuen artean, emakumeen kasuan erabilera %14raino murrizten zen. Gizonezkoen hitanoaren erabilerak ia emakumezkoena hirukoizten zuen.

Eta pandemia honetan sarriegitan jomugan jarri izan diren gazteak eredu ditugu hitanoaren erabileran. Ahotan gehien hartzen dutenak dira. “Gero adinekoak, gutxiago helduek”, Potxoeneko hitzaldian zehaztu zuten.

Azterlan hartatik beraz, hiru ondorio argi atera daitezke hizlarien esanetan. Gazteak hitanoaren erabileran eredu direla nabarmentzearekin batera, “emakumeek gutxi erabiltzen dute. Eta emakumeei askoz gutxiago egiten zaie hika”. Ez herri zehatzetan, “joera bat dela dirudi” generoen artean dagoen arrakala. Eta ez kasualitatez, errealitate hau isla dezaketen arrazoiak badira. “Ospe txarra, prestigio baxua” izan dezakeela hitanoak. “Bere eskasian” gizonezkoen artean bizirik darrai tokak forma horretan, nokaren erabilera askoz apalagoa da orde. Aipatzekoa baita genero arrakala horren bestelako argudioen artean, espazioa publikoa Potxoeneko hitzaldian gogorarazten zuten moduan tradizionalki gizonezkoena izan dela, sozializatzeko baliatu izan dutena, eta bertan beraz, hitanoa baliatzeko aukera gehiago izan dute, gehiagotan eta gehiagorekin. Noka aldiz eremu pribatura mugatu izan da gehienetan. Gainera “emakumezkoek joera gehiago dute aldaera jasoetara jotzekoa”.

“Usurbilgo hikaren oinarritzko nondik norakoak jaso ditugu patrikarako hiztegian”

Kultur adierazpideetan hitanoak duen presentziaren isladaren errepasoa egin zuten. Eta bai entzun eta irakurri daiteke bai antzerkigintzan edota literaturan bereziki.

Hitanoa euskarriotan nahiz bizitzako arlo ezberdinetan bizirik mantentzeko ahaleginari dagokionez, Euskal Herriko txoko ezberdinetan badela ondare hau eustearen aldeko mugimendua adierazi

zuten hizlariak Potxoenean. Aurrera begira egin zuten galdera nagusietako bat ildo horretan planteatzen zuten. Nola egin? Nola egin, hitanoaren erabilera zabaltzeko, aditzak oker erabiltzen dituenari zuzendu edo ez? Noren artean erabili, tradizionalki egin izan den moduan edo egokia da baita bikote harremanetan, guraso eta haurren artean erabiltzea? Hitanoaren erabilera

emakumezkoen artean askoz apalagoa izanik, emakumeen arteko aliantza baliagarri izan daiteke indartzeko? Hausnarketara bideraturiko galdera hauen inguruan solas eginez amaitu zuten Potxoeneko hitzaldia.

Patrikarako liburuxka

“Patrikarako hitanoa” kaleratu eta banatu dute etxez etxe, hitanoaren erabilera sustatzeko lanean dabilen herri eragi-

leek, transmisioan etena izan dela ohartarazita.

Liburuxka honen bidez “ondare hori babestu eta suspertzeko ahaleginetan ari gara”. Bertan, “Usurbilgo hikaren oinarritzko nondik norakoak jaso ditugu, hika egin nahi duzenontzat abiapuntu izan daitezen, eta, oro har, adizkera jolasti eta gertuko hau erabiltzeko gonbita herriar guztioi egiteko”.

Udaletxea, Interes Publiko Gorenko Proiektuen erregulazio berriaren aurka

Eusko Legebiltzarrean izapidetzen ari diren Ingurumen Administrazioaren Lege Proiektuaren baitan sustatu nahi duten “Interes Publiko Gorenko Proiektuen figura” jasotzearen aurka agertu zen udalbatza azaroaren 25eko osoko bilkuran. Gai honi lotutako mozioa onartu zuen gehiengo osoz (EHBildu alde, EAJ eta PSE aurka). Figura horrek “toki-demokrazia” urratzen duela salatzen du testuak.

“Usurbilgo Udalaren Osoko Bilkurak adierazten du Lurralde Antolamenduari buruzko Legeak Interes Publiko Gorenko Proiektuen figura jasotzearen aurka dagoela, eta baita ere, gure udalen toki-autonomiarantz kaltegarria den eta gure toki-demokrazia urratzen duen beste edozein tresnaren aurka dagoela”. Egoera honetan, EUDEL-i udalen udal-interesa defendatzea eskatzen dio.

Testuak berak argitzen du gai honen testuingurua. “Ingurumen Administrazioaren



Lege Proiektuaren aurka agertu da EHBildu. Alde, EAJ eta PSE. Emakumeenganako indarkeriaren aurkako egunari lotutako mozioa eta Euskararen Egunari loturikoa ordea, ahobatez onartu ziren.

Proiektuak “toki-demokrazia” urratzen duela salatu zuen EHBilduk

Lege Proiektua izapidetzen ari da Eusko Legebiltzarrean”, laster onartzeko moduan egon daitezke. Lege horren baitan, “Interes Publiko Gorenko Proiektuen figura sortzea” aurreikusten du Jaurlaritzak. Mozioak dioenez, “aldaketa horren bidez, Eusko Jaurlaritzari ahalmena ematen zaio ustezko ingurumen-hobekuntza izan dezakeen edozein azpiegitura Interes Publiko Go-

renko Proiektu izendatzeko, baldin eta sustapen publikoa badago, hala nola, energia berriztagarriak sortzeko proiektuak, zabortegiak, araztegiak, erauzketa-proiektuak... Gainera, ez zaie aterik ixten beste proiektu mota batzuei, hala nola ekipamendu handiei edo bestelakoei, baldin eta ingurumenaren aldetik nolabaiteko justifikazioa badute (eremu degradatu batean planteatutako ia edozein proiektu, esaterako, antzinako hondakindegia batean golf-zelai bat...)”.

Udal eskumena ezbaian

EAJ-k bere eraginkortasun eta

gardentasuna defendatu zuen azaro amaierako udalbatza-rean. Trantsizio energetikoa egikaritzeko programak sustatzen dituela.

EHBildutik “tokiko demokrazia” urratu eta aipaturiko Interes Publiko Gorenko Proiektuen figurak inposaketaren bidea zabaltzen duela ziorten. “Lurralde antolaketaren irizpideak eta udalerririk legez dugun esku-duntza hankaz gora jartzen du”, udal gobernu taldearen esanetan. Adibide bezala jarri zuen udal gobernu taldeak, herriarrek landutako etorkizuneko Usurbil diseinatuko duen Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO). “Ez du legitimaterik Jaurlaritzarentzat”.

PSE-tik Patxi Suarez zinegotziak zioen “ez du autonomiarik kentzen”. Bere esanetan “interes gorena” EAE-ko herriarrak ordezkatzeko dituen Eusko Legebiltzarrean dago. Udal gobernu taldetik erantzun ziotenez, udal politikak Legebiltzarrean erabaki behar badira, “gu akaso soberan gaude”.

Usurbilgo PSE-EEK hobekuntzak eskatu ditu bide publikoan

Patxi Suarez talde sozialistako bozeramailearen ustez premiazkoa da espaloiak eta galtzadaren berritzea, eta bide-seinaleztapena eguneratzea. Hain justu, San Esteban kalean kokatuta dagoen espaloia eta seinaleztapen berria, bai horizontala eta baita bertikala ere, Zubieta eta Santuenearen arteko errepidean.

Suarezek adierazi du neurri horiek mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko ezinbestekoak direla. San Esteban kalean Villa Luisaren parean espaloia “oso estua” da; gune

honen ikuspenak kezkatzeko du PSE-EE gehien. Eskailera erabiltzen dituzten pertsonak ez daude autoen gidarientzat ikusgai. Horretaz gain, tren geltokitik hurbil dagoenez, umeek eta gazteek maiz ibilitako bidea da; uste du oinezkoak espazio horretan ibilbide “segurua” izatea lortu beharra dagoela, oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa aldi berean egiteko.

Gero eta pertsona gehiagok, txirrindulari zein oinezkoek, Santuenea eta Zubieta arteko errepidea erabiltzen dute;

beraz, seinaleztapena berritzea beharrezkoa dela deritza PSE-EEren bozeramaileak, seinaleztapen egokia istripuak ekiditeko modu eraginkorrenetako bat delako.

Bi neurri horiek aurkeztu zizkion Suarezek EH Bilduko udal-gobernuari txerta zitezen, baina atzera bota zituzten. Hala ere, PSE-EEren ustez, lehentasuneko bi jarduerak dira usurbildarren beharrei irtenbidea emateko eta beraiei bizikaltasuna hobetzeko balioko dutenak.

KzGuneak Covid-19 ziurtagiria eskuratzen lagunduko du

KzGuneak Covid-19 ziurtagiria eskuratzeko arazoak dituzten herritarrei laguntza eskainiko die. Aste honetan, asteazken eta ostegun goizean emango dute aukera gabonetako oporrak hartu aurretik; urtarilaren 3tik aurrera, berriz, arratsaldean hilabete osoan zehar.

■ Abenduaren 22an eta 23an: 11:00etatik 13:00etara.

■ Urtarrilaren 3tik aurrera: 18:00etatik 20:00etara.

Zumarte Musika Eskolako abesbatzek elkarrekin abestuko dute elizan

Zumarte Musika eskolako hiru abesbatzek kontzertua eskainiko dute asteazkenean, hilak 22, Salvatore Elizan, arratsaldeko 18:30etatik aurrera. Zumarte-Txiki abesbatza, Zumarte Abesbatza eta Zumarte Gazte abesbatzako kideek hartuko dute pare edukiera mugatua izango duen kontzertuan.

Intza Bengoetxeak zilarrezko domina eskuratu du

Zumarteko musikariek maila ederra erakutsi dute azken aldian, eta horren seinale da hilaren hasieran Arrasaten ospatutako Akordeoi Lehiaketan



Intza Bengoetxea, Arrasateko Akordeoi Lehiaketan. Argazkia: Zumarte.

Intza Bengoetxeak irabazitako zilarrezko domina. A Hastape-
nean aritu zen akordeoijolea

eta 20 puntu eskuratu zituen, eta beraz, zilarrezko domina eskuratu zuen.

“Perez Sagutxoa”, Aginagako izarra

‘Botadun katua’ antzezlanaren eskaintzekoak ziren larunbatean Aginagako Eliza Zaharrean, baina azkenean ‘Perez Sagutxoa’ eskaini zuten.

Antzelanean dantza eta musika uztartu zituzten aktoreek eta oso ikuskizun bisuala egitea lortu zuten.



‘Perez sagutxoa’ ikuskizunak gazteen arreta bereganatu zuen.

Plazan Bazan, 14/15 orrialdeetako soluzioak

NONDEK ATERA OTE DA ZINTZILIKARIO MORDO HALI!

Sudokua

Egutegiko azken hila abendua da. Lotazila edo nequila ere esaten zaio. Bete itzazu hutsuneak abendu hitza osatzen duten hizkiez (A, B, E, N, D eta U). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

D	E	B	A	U	N
N	U	A	D	E	B
U	N	D	B	A	E
B	A	E	U	N	D
E	D	U	N	B	A
A	B	N	E	D	U

NONDEK ATERA OTE DA ZINTZILIKARIO MORDO HALI!

DOMINOAN

Bete itzazu hutsuneak argindarraren domino zati honek zentzua izan dezan.

Mezua

Marrakitzkoak ezkututzen duten esaera ezin hobeto dihoakio mutiko honi. Jarri marrakitz bakoitzaren azpian bere hizkia eta osatu esaera. Erabili irudi-alfabetoa.

ALFABETOA

A	B	C	D	E	F	G	H	I
J	K	L	M	N	O	P	Q	R
S	T	U	V	W	X	Y	Z	

Bide batez, irudia margotu.

Itzala

Ez dakigu Aita Noelen laguntzaileetako bat den, ala Maripurtzili ote den, ipotxex mozorrotuta. Nolanahi dela ere, Olentzerori opari batzuk ostuta alde egin du. Ikusten ari zaren itzal horietatik bakarra da zuzena. Zein da?

Bide batez, margotu ezazu zure gustura.

Engainariak

Zazpi txatal hauetatik hiru ondoko irudi nagusitik hartuta daude eta beste lauak, berriak, engainariak dira. Berez itzazu.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

Alokairuan

San Esteban kalean (Etxealdia) 31m²ko lokal bat alokairuan. Masajeak emateko edo estetikaz zerbitzuak emateko prestatuta dago. 655735715.

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Usurbilen pisu konpartitu batean logela bat alokatzen da mutil edo neska batentzat. Bila bazabiltza deitu 618032966

Neska kaudimenduna, masakotak onartzen dituen etxe-

bizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107.

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500.

MOTORRA**Salmenta, garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Zerbitzaria behar da Artzabal-

en, barra, eguneko menua eta kartarako. 3 astetik behin asteburua jai. 30 orduko lanaldia. Interesatuok hona deitu: 943 36 91 39.

Olarrondo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaerarako. Eguerdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. Deitu telefono zenbakiotako batera: 943366710 edo 943370668.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Umeak zaintzeko pertsona bat behar dugu, txandaka, goiz eta arratsalde. Hilabetearen 15 ordu. Euskalduna izatea. 666 925 378 (Esti).

Adinekoak eta haurrak zaintzak edota etxeko garbiketarako egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Astelehen eta asteazken arratsaldeetan ingeleseko klaseak ematen ditut, norberaren etxean edo nirean. Klaseak ematen esperientzia zabala. 678106553.

Pertsona helduak, garbiketarako, peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz. 622747833.

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest,

neska bat naiz. 622747833.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioarekin. 612 433 485.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egina dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604349970.

BESTELAKOAK

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzkagu salgai. 6/7 hilabetetako 5 txerrikume ere bai. Interesatzen bazaizu deitu 607 668 603 (Joxe Cruz)

Ingeleseko, frantseseko eta latineko kalseak ematen ditut etxera joanda. 600766068.

Filologia ikasketak ditut, ingeleseko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. Harremanetan jartzeko deitu hona 660845780 edo idatzi email bat hona: bouchrahajar@outlook.com

**Zorionak Unai eta Ander!**

Unai, 10 urte beteko dituzu abenduaren 18an. Anderrek 12 urte beteko ditu abenduaren 29an. Ondo pasa eta eguberri on! Muxu handi bana familiaren partez.

**Zorionak Izar!**

Abenduaren 24an zure 9. urtebetetzea izango da, orain eta beti oso harro gaude zutaz, ilargiraino eta buelta maite zaitugu. Amaiur, aita eta ama.

**Zorionak Su!**

Zorionak etxekoan partez. 5 urte potolo bete dituzu abenduaren 8an. Oso gustura ospatu genituen elkarrekin.

**Miriam Arrillaga Beloki, txapeldunorde**

Txapeldunorde amaitu du Miriam Arrillaga Belokik Master Laboral Kutxa eskupilotako lau t'erdiko txapelketa. Igan-dean jokatu zuen lehia honetako final handia Mungian. 14-22 nagusitu zitzaion Amaia Aldai aurkaria. Senide eta lagunez osaturiko babes talde zabala izan zuen Miriamen alboan.

**Zorionak!!**

Egun polit bat pasa dezazuela zuen familiarekin.

Goardiako farmaziak

Osteguna 23	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Ostirala 24	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Larunbata 25	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Igandea 26	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Astelehena 27	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Asteartea 28	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Asteazkena 29	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte

Osteguna 30	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 31	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Larunbata 01	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Igandea 02	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda abendua

22 asteazkena

- **Zumarteren abesbatzen kontzertua** 18:30 Salbatore Parrokian. Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.
- **Txomin Iturberen biografia liburuaren aurkezpena** 19:00 Sutejin. Antolatzailea: Aitzaga Elkarte.

23 osteguna

- **Ezohiko eta urteko azken udalbatzarra** 18:00 Udaleko pleno aretoan.
- **Olentzero Aginagan.** 18:00 Harrera Seka-ñako bidegurutzean eta gero gutun bilketa eta gaztain jana Eliza Zaharrean. Antolatzailea: Antxomolantxa elkarte.

24 ostirala

- **Olentzeroren etorrera** 17:30 Kalezarko kaxkotik Dema plazara. Antolatzaileak: herriarrak, eragileak eta Udala elkarlanean.

Olentzero eta Mari Domingi Kalezarretik barrena iritsiko dira

Olentzero eta Mari Domingi opariz beteta helduko dira abenduaren 24an. 17:30ak aldera Kalezarren izango dira eta handik kalejira modukoa abiatuko dute. Gauzak ondo, 19:00ak aldera iritsiko dira Dema plazara.

Abenduak 24 ostirala

- Ordua: 17:30etik aurrera.
- Ibilbidea: Kalezarko Kaxkoa, Aliproxeko biribilgunea, Errekatziki eta Puntapax kaleak, Bordatxo pareko biribilgunea eta Dema plaza.
- Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, herritarrak eta herri eragileak.



Kalejira modukoa osatuko dute abenduaren 24an.

Pailazoak Oiardon

Abenduak 29, asteazkena

- Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Kui-kui" ikuskizuna Oiardo Kiroldagian.
- Lehen saioa: 16:00etan.
 - Bigarren saioa: 18:30ean.
 - Sarrerak: 8 euro, usurbilkultura.eus plataforman. Abenduaren 17an ipini ziren salgai.
 - Antolatzaileak: NOAUA! Kultur Elkar-tea eta Usurbilgo Udala.



Bi saio eskainiko dituzte, 16:00etan lehena eta 18:30ean bigarrena.

San Silbestre lasterketa

Abenduak 31, ostirala

- Hurbilago San Silbestre Herri Lasterketa 17:00etan abiatuko da frontoitik.
- Izen-ematea: Hurbilagoren saltokietan edo egunean bertan frontoian bertan, 16:00etan hasita.
 - Lasterketa amaieran, sarien zozketa parte hartzaileen artean; mozzorro onenari sari berezia emango zaio.
 - Antolatzailea: Hurbilago Elkarte.



Lasterketa arratsaldeko 17:00etan abiatuko da Usurbilgo frontoitik.

Datozenak

Ipuin kontalaria Aginagan

Aginagako Eskola Txikiko guraso elkarteak aditzera eman duenez, "abenduaren 28an Eli Zinkunegik ipuinak kontatuko ditu Aginagako Eliza Zaharrean". Arratsaldeko 17:00etan hasiko da ekitaldia.

Gabonetako Parkea Oiardo kiroldagian

Urtarrilak 2-5

Urtarrilaren 2tik 5era Gabonetako Parkea ipiniko dute Oiardo kiroldagian.

- Ordutegia: Goizez, 11:00-13:00.
- Arratsaldez, 16:30-19:30.
- Oharra: urtarrilaren 2an, 3an eta 4an 16:30-19:30 artean zabalik izango da eta urtarrilaren 5ean soilik goizez, 11:00-13:00 artean.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Errege kabalgata

Urtarrilak 5, asteazkena

Egoerak ez badu okerrera egiten, errege kabalgata egingo da urtarrilaren 5ean. 17:00etan abiatuko da Urdaia-gatik eta 19:00ak aldera iritsiko da Usurbilgo kaxkora.

Glup, euskarazko filma Sutejin

Neguko euskarazko zine zikloa haurrentzat Sutejin: "Glup". Film honetako istorioa zabortege batean gertatzen da, eta Glup eta Alize ditu protagonista nagusiak.

- Urtarrilak 9 igandea, 17:00etan. Antolatzaileak: Udala, Ziortza G.E.



URDAIRA

Sagardotegia

URTARRILAREN 15ean
larunbata
irekiko dugu!

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



Atxega Jatetxea
JATETXEA

·EGUNEKO MENUA: (astelehenetik ostiralera)
·EGUNEKO PLATERA · ASTEBURUKO MENUA · KARTA
· RAZIOAK · OGITARTEKOAK · PINTXOAK..

ATXEGA JATETXEKO LAN TALDEAK JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE!
urtarrilaren 4an berriro zuen zerbitzura!

TERRAZA ZERBITZUA ETA ETXERA ERAMATEKO ERE!!

Zorionak eta urte berri on!

Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150



ARATZ
zabaleta anaiak
1989tik

Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da

·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak
Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04

Ñoñostiarrak ta baxurdeak
Herriaren zatiketa
Bien arteko adostasuna
Lortzeko biden kolpeka
argia da salaketa
Herri haundi ta infernu txiki
lortutakoan oreka
Eguberri on, urte berri on
dezazula Zubieta!

Zubietako Herri Batzarra

